

The Passion of Christ Balmaseda

Balmaseda

Pasión Viviente. Pasio Biziduna

Jueves Santo y Viernes Santo
Ostegun Santua eta Ostiral Santua
Maundy Thursday and Good Friday

viacruzibalmaseda.com
visitenkarteri.com



Noticies de Bizkaia
Deia

 **enkartur**
www.visitenkarteri.com

b balmaseda

EUSKADI
BASQUE COUNTRY


Bizkaia
fora bizkaia
deputacion foral

 **CaixaBank**

 **Santecode**

Bizkaiko hiribildurik zaharrena da eta, horregatik, antzinako monumentuen aztarna ugari eta tradizio sekularrak kontserbatzen ditu. Horiek guztiak historia zabalaren lekukoak dira. Horien artetik, Gurutze-bide Bizidunaren antzezpena da Balmasedakoek harro aldarrikatzen duten tradizioa . Urtero pertsona kopuru garrantzitsuak dihardu antzezpenean, antolaketan, “paso tradizionalak” eramateko orduan, etab. parte hartzen. Nolanahi ere, beren ilusio eta grina guztia jartzen dute.

Antzezpenearen jatorria batzuentzat penitentziazko prozesioetatik dator. Hain zuzen ere, XVI. Mendeaz geroztik Koltza mendira egiten ziren horiek, San Rokeri hiribildua izurriez askatu izana eskertzeko. Dokumentuen arabera, ordea, XVIII. mendekoa da. Nolanahi ere, Jesu Kristoren Pasio eta Heriotzaren antzezpene leial eta dramatikoak da, eta Balmasedako gizonak nahiz emakumeek ahalik eta errealismo handiena eskaintzen diote.

Balmasedako Gurutze-bidearen Elkartea Bera Kurutz antzinako kofradiaren oinordekoa da. Interpretak hautatzeaz, entseguak eta antzezpenak zuzentzeaz eta erabiltzen diren jantziak eta agertokiak mantentzeaz arduratzen da. Horretarako, Balmasedako Udalaren eta beste babesle batzuen lankidetzaren erabakigarria du, baita Koltza Abesbatzarena, Musika Bandarena, Babes Zibilarena eta DY Arena ere.

Antzezpenean gutxi gorabehera 700 herritarrek parte hartzen dute, eta horietatik 350ek zuzenean Pasioa irudikatzen dute. Pertsonaia nagusiak (Jesus, Pilato, Andre Maria, lapurrak, Magdalena, etab.) urtero berritzen dira eta ez dute makillajerik behar izaten (Balmaseda Pasioa baino lehen bizardunen herria da). Horrez gain, eskuzabaltasunez aritzen dira, zuzendaritza artistikoak eta teknikoak egiten duen bezala.

Entseguak urtearen hasieran hasten dira elkarrizketa duten pertsonaientzat: Jesus, apaizak, apostoluak eta Pilato. Gainerakoek Ostegun Santua baino hiru aste lehenago ekiten diote lanari. Antzezpene konplexua izan arren, balmasedarrek pertsonaiak haurtzarotik ezagutzen dituzte, hiribilduan Aste Santua igaro ondoren, haurrek “prozesioetara” jolasten baitute eta horietako batzuek adin nagusikoek egindako alderdi guztiak leialtasunez islatzen dituzte.

PROGRAMA

OSTEGUN SANTUA

19:00 – Ostegun Santuko Prozesioa

21:30 – Azken afariaren antzezpena

OSTIRAL SANTUA

9:30 – Pasio bizidunaren antzezpena

19:00 – Ehorzketaren Prozesioa

21:30 – Isiltasunaren Prozesioa

ANTZEZPENAREN EKITALDIAK

OSTEGUN SANTUA

Ostegun Santuan, gaueko 21:30etik aurrera San Severino plazan lehenengo ekitaldia hasiko da. Parroki elizaren ataria (Euskadiko monumentu nazionala) erabiltzen da, apaizen kontzilioa eta horien aurrean Jesusen epaiketa antzetzeko. Udaletxeko aterpeak Azken Afarirako erabiltzen dira.

Antzezpenari ekiteko Jerusalemgo herria osatzen da. Hala, pertsonaiak sartuz doaz eta plaza zuzien argi naturalez argizatzen da. Izango diren pasarten sentipenak antzemateko giro paregabea sortzen da. Gutxi gorabehera ordubeteen eszena hauek jokatuko dira: Apaizen Kontzilioa, Azken Afaria, Olibondoen Baratzeko Otoitza, Jesusen atxiloketa eta epaiketa Kaifas buru den apaiz-taldearen aurrean.

Hurrengo goizean jarraituko du.

OSTIRAL SANTUA

Balmasedako Pasioaren pasarterik ezagun eta dramatikoena da. 09:30ean hasiko da Mojazelain, bertan lehen Klaratarren komentua baitzegoen. Hiru zati izango ditu, oso desberdinak:

- Pilatoren epaiketa: Judas urkatuz hasten da, gero, Pretorioan Poncio Pilatoren aurrean Jesusen epaiketa dator eta Jesusen zigorraldia antzezten da. Barrabas askatu eta Ecce Homo izenekoa egiten da. Ekitaldi honetan apaizek eta turbak parte hartzen dute. Jesusen kondenari dela-eta Pilatoren aurrean eragiten saiatzen dira. Kondenatutakoan, Jesusi gurutzea, 65 kilo baino gehiagokoa, eramanaraziko diote, eta, Dimas eta Gestas lapurren laguntzaz, Gurutze-bidea hasiko du. Lehen erorikoa eta Maria Magdalenarekiko eta Andre Mariarekiko topaketak gertatuko dira.

Ekitaldi guztian, Koltza Abesbatzak Balmasedako antzinako kantak, Pasioari buruzkoak, abestuko ditu.

- Gurutze-bidea: Balmasedako guneko historikoko kaleetan zehar egiten da, gurutziltzaketa eszenaratzen den tokiraino. Ibilbide horretan, bigarren erorikoa eta hirugarrena gertatzen dira, Foru plazan eta San Severino plazan, hurrenez hurren.

Gurutze-bidean beste ekitaldi hauek ere egiten dira: Jesusi gurutzea eramaten lagundu zion zirenarraren atxiloketa, Veronikarekiko topaketa eta, gero, bigarren erorikoaren ostean, Jerusalemgo emakume errukitsuekiko topaketa.

Jesus hirugarren aldiz erori ondoren, Gurutze-bideak Martin Mendia kalean zehar jarraitzen du Zubi Zaharreraino iritsi arte. Zeharkatuz azkeneko agertokira iritsiko da eta bertan gurutziltzaketa gertatuko da.

Ekitaldi honetan penitenteek parte hartuko dute. Beren gurutzeekin Gurutze-bidea irekiko dute. Irudi horiek gutxi gorabehera berrogeita hamar dira eta batzuek oso gurutze astunak eramaten dituzte. Nolanahi ere, tradizioak Gurutze-bideari eskaintzen dion penitentziaren izaerari eusten dio.

- Gurutziltzaketa: Kristoren kalbarioaren azken egonaldiak 50 metro zabal eta 15 metro altu den agertoki baten gainean egiten dira.

Ikusgarritasun eta dramatismo handiko ekitaldi bat da. Bertan, Jesusek bere azken hitzak esaten ditu, azken arnasa ematen du, eraitsi egiten dute eta hilobira eramaten dute. Horrela amaitzen da antzezpena. Halaber, agertoki horretan Koltza Abesbatzak gai erlijioso zaharrak, Kristoren heriotzarekin zerikusia dutenak, interpretatzen ditu.

PROCESIONES DE PASOS

Pasio Biziduna ez da Balmasedako biztanleek Aste Santuan zehar mantentzen duten tradizio bakarra. Prozesio desberdinek, paso artistikoekin, Ostegun eta Ostiral Santuan hiribilduaren errukia adierazten dute.

OSTEGUN SANTUKO PROZESIOA

Ostegun Santuan arratsaldeko 19:00etan hasten da. San Severino plazatik Hedegile eta Martin Mendia kaleetarantz abiatzen dira, eta ondoren abiapuntura itzultzen dira. Erromatarrek eta penitenteek (oinutsik dabilzanek eta txanoa eta gurutzeak daramatzatenek) lagun egiten diete pasoei. Kolutza Abesbatzak eta Azkoaga musika- taldeak ere parte hartzen dute.

EHORZKETAREN PROZESIOA

Ostiral Santuan arratsaldeko 19:00etan hasten da. Aurreko eguneko pertsonaia eta pasoekin batera, Magdalenak, Andre Mariak, Veronikak, Apostoluek eta goizeko antzezpeneko beste pertsonaia batzuek desfilatzen dute.

Pasoen kalitatearen eta pertsonaien egoera goibelaren artean, prozesio honi tristura sakoneko eta bildutasuneko giro bat ematea erdiesten da. Ibilbidea San Severino plazan hasi, Hedegile eta Martin Mendia kaleetatik igaro eta abiapuntura itzultzen da.

ISILTASUNAREN PROZESIOA

Ostiral Santuan gaueko 21:30ean pasoekin azkeneko prozesioari ekiten zaio.

Guardia erromatarrak heriozko isiltasunean lagun egiten die Hilerriko Kristoaren eta Nahigabetuaren pasoei hilerriraino. Han, erresponstu labur baten ostean, Kristoaren pasoa bere ohiko kokapenean ipintzen da, hilerriko kaperako horma batean, eta Nahigabetuarekin parrokia-elizara itzultzen dira.

Ibilbidea San Severino plazan hasten da, Pío Bermejillo eta Martin Mendia kaleetatik igarotzen da, Millonario zubia zeharkatu eta hilerrirako bidea hartzen du.

Bicia gidatuak

Alboan herriko enpresa, tradizio hau ezagutzeko modu hau bat aurkezten du, bere lekuak, bere istorioak... Ostegun Santuan, antzezpenak hasi baino lehen, bisita gidatu bat egingo du.

Orduak: 12:00 eta 19:00

Elkar puntua: San Severino Enparantza Prezioa: 5€

Informazioa: alboanjgb@gmail.com 605 757 420

v argazki lehiaketa

Pasaden urtetan bezala, argoskiak Ostegun eta Ostiral Santuan atera ahal dira.

Hiru sari egongo dira:

- Lehenengoa: 1.000€
- Bigarrena: 500€
- Hirugarrena: 300€
- Herrikoa: 200 €

Argazkiak apirilaren 9tik apirilaren 30era arte bidali ahal izango dira.

www.viacrucisbalmaseda.com

Personaiak

Jesús	Iñigo Ramos
Cirineo	Julen Ibarquen
San Pedro	Luis Mari Torre
San Juan	Fabio Orrantia
Santiago el Mayor	Borja Aretxederra
Judas	Roberto Reguera
Virgen María	Karmentxu Ramos
Magdalena	Sheila Maia
Verónica	Artzegiñe Nuñez
Dimas	Víctor Bárcena
Gestas	Unai Rey
Barrabás	Julen Fernández
Poncio Pilato	Txintxo Rivero
Flagelo	Toño Gómez
Caifás	Juan Carlos Santibañez
Cleofás	Fernando Agustino
Zerath	Isaac Puente
Jeremías	Jose Mari Vallejo
Nicodemo	Txetxu Allende
Centurión	Oskar Arroyo

1770. urtea Pasoekin prozesioak egiten zirela agertzen da. Baliteke penitenteak ateratzea, Santanderko apezpikuaren idazkia baitago eta hala dio: “Carlos III.a erregearen aginduz, penitenteek, diziplina-jartzaileak, paladunak, etab. parte hartzea debekatuta dago, horietan izandako abusu eta gatazken ondorioz”.

1859. urtea Lehenengoz “fariseu” izenekoak agertzen dira. Balmasedan hala deritze soldadu erromatarrei.

1884. urtea Lehenengoz Jesus harrapatzearen prozesioa eta Zirinearra lehenengoz ospatzen da.

1905. urtea Magdalenaren eta Hiru Marien lehen berriak ageri ziren.

1935. urtea Pilatoren aurreko epaiketa lehenengoz antzezten da.

1955. urtea Lapurrek Kristori lagun egin zioten Gurutze-bidean

1957. urtea Pertsonaia ugari gehitu zitzaizkion Gurutze-bideari; garrantzitsuenak Andre Maria, tunika luzedunak eta Sanedrineko guardia izan ziren.

1963. urtea San Severino plazan lehenengoz gurutziltzaketa antzezten da.

1976. urtea Judasen urkamendua gehitu zen.

1981. urtea Kristoren zigorraldia sartu zen.

1984. urtea Ostegun Santu gauean lehenengoz Azken Afaria antzezten da eta Baratzeko Otoitza ostiral goizetik ostegun gauera pasako da.

2006. urtea Apaiz Nagusien aurreko Epaiketa eta Kontzilioa eransten dira Ostegun Santu gauean.

2015. urtea Invencible Compañía Farisaica izeneko eratu zenetik 150. urteurrena.

- San Juan plazan pantalla erraldoi bat egongo da, bisitariak Via Crucis-a nola Balmasedako kaleetatik ibiltzen den ikus ahal dezaten.

2018ko berritasunak

- Estazio batzuk lekuz aldatzen dira. Hirugarren erorketa San Juan plazan gertatuko da, bisitariak eszena gehiago ikusi ahal izateko.
- Aurten, zuzenean jarraitu ahal izango da streaming bidez www.viacrucisbalmaseda.com web orrialdean.
- Kalbarioko eszenatokia berritu da guztiz.
- Web orrialdearen bidez zein lekutan aparkatu ahal da jakin izango da.

Gomendioak

Elkarteko prentsa-arduradunek zuzenean emandako gomendio guztiei erreparatu beharko zaie. Gauza bera egingo da ordena publikoko langileek azaldutakoekin. Izan ere, funtsezkoa da antzezpeneren garapena ez etetea eta eskusiboki pertsonaientzat diren espazioetan ez sartzea.

Sarrereren salmenta

Enkartur Turismo Bulegoa (Martín Mendia, 2):

Edozein momentuan.

Klaret Antzokiko txarteldegia (Done Joana Plaza):

Ostiral Santua 8:00-9:15.

Aste Santuko Museo:

Edozein momentuan.

Online salmenta:

www.viacrucisbalmaseda.com web gunearen bidez.

kontaktua eta akreditazioak

Albiste garrantzitsuenak Elkartearen web orrian eta gizarte-sareetan argitaratzen dira.

www.viacrucisbalmaseda.com

facebook.com/AsociacionViaCrucisVivienteBalmaseda

twitter.com/VC_Balmaseda

Informazio gehiago eta akreditazioak: info@viacrucisbalmaseda.com



www.visitenkarterri.com

www.viacrucisbalmaseda.com

